

**2.3.1. Lidergorako ezaugarriak agertzea. Prestakuntzarako interesa agertzea, araudiaren eta ikastetxeko funtzionamenduaren gai garrantzitsuenak ezagutzuz, eta hezkuntza-komunitateko eta inguruko erakundeetako hainbat sektoreren beharrak ulertzeko, erantzuteko eta asetzeko ekimenak hartzea.**

**2.3.2. Prestakuntza eta berrikuntza sustatzea eta bultzatzea, ikasteko eta irakasteko prozesuak hobetzeko eta ikastetxearen kudeaketa eta antolaketa berritzeko.**

### **1. ZUZENDARIAREN LIDERGO POSITIBOARI LOTUTAKO EZAUGARRIAK (ELKARRIZKETAK)**

- Gaitasun pertsonal, profesional eta sozialak (ZT / irakasleak / koordinatzaileak).
  - ✓ Autokudeaketarako gaitasun pertsonalak (jarraitutasuna, autonomia, malgutasuna, prestakuntza-gaitasuna...).
  - ✓ Trebetasun sozialak (enpatia, laguntzeko gaitasuna, mugak jartzea, egoera zailak bideratzea...).
  - ✓ Gaitasun profesionalak (giza taldeak eta baliabide materialak kudeatzeko gaitasuna, araudi orokorra eta berariazkoa ezagutzea, ikastetxeen antolaketari buruzko teoria eta praktika, ebaluazioa...).

### **2. ZUZENDARIAREN PRESTAKUNTZA (DOKUMENTUEN BERRIKUSPENA)**

- Dokumentuen berrikuspena, jasotako prestakuntza egiaztatzeko: egindako ikastaroen zerrenda, parte hartzen duen mintegi eta foroak, irakurketak...

### **3. IKASTETXEKO ETA BESTELAKO PRESTAKUNTZA (DOKUMENTUEN BERRIKUSPENA, ELKARRIZKETAK)**

- Dokumentuen berrikuspena, honako alderdi hauek egiaztatzeko: jorratutako gaiak, emango den prestakuntzari buruzko erabakiak hartzeko prozedurak, prestakuntzaren antolaketa eta inpaktua (prestakuntzari buruzko dokumentazioa).
- Aurreko alderdiak zehazteko elkarrizketak: ZT / irakasleak / koordinatzaileak.